

VII. ERANSKINA. JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN SAILAK DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

PASAIAN ARRAUNA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

0- Eskatzaileak

Pasaiako irabazi asmorik gabeko arraun elkarteak

1- Diruz lagunduko diren jarduerak/ikastaroak

1. ATALA

- Pasaiako badian estropadak antolatzea

2. ATALA

- Pasaiako 12 urte bitarteko haurrak dauzkaten ikastetxeekin (Pasaia-Lezo Lizeoa, La Anunciata, Lezo-Herri Eskola eta IES Bidebieta) edo irabazi asmorik gabeko elkarteekin elkarlanean egindako programak, zehatz nahiz eta aldizkakoak: arrauna sustatzeko helburuarekin antolatutako hitzaldiak, tailerrak, eta ur jarduerak, eskola orduetan edo eskola orduz kanpo.
- Eskola kirola programaren barruan, arrauna sustatzeko erakustaldi edo jarduerak.

3. ATALA

- 2. Atalean adierazitako arrauna sustatzeko jardueretako material berezia erostea.

2- Baldintzak

- Pasaiako kirol klub edo elkarten erroldan alta egotea.
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Saileko diru-laguntzen hizkuntza irizpideak betetzea.

3- Balorazio-irizpideak

1. ATALA

A) ANTOLAKETA

a.1) Estropada kopurua

- Antolatutako estropada jardunaldi bakoitzeko – Puntu bat

a.2) parte-hartzaile kopuru totala

- Gizonezko talde federatu bakoitzeko – 0,25 puntu
- Emakumezko talde federatu bakoitzeko – 0,50 puntu

a.3) Lehiaketaren maila

- Toki / Lurralde maila – 4 puntu
- Euskal Herri maila – 6 puntu
- Nazioarte / Estatu maila – 8 puntu

2. ATALA

A) ANTOLAKETA

a.1) Saio kopurua

- Saio bakoitzeko – Puntu bat

a.2) Parte-hartzaile kopurua

- Parte-hartzaile bakoitzeko – 0,1 puntu

a.3) Arduradun teknikoak

- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Graduan, edo Nazional mailako titulua duen teknikari bakoitzeko
 - Gizonezkoak – 1,5 puntu
 - Emakumezkoak – 1,75 puntu
- Jarduera Fisikoko eta Kiroletako Goi-mailako Kirol-Teknikari titulua, edo kirol diziplinako autonomia edo lurralde mailako titulua duen teknikari bakoitzeko
 - Gizonezkoak – puntu bat
 - Emakumezkoak – 1,25 puntu
- Erantzukizun teknikoa eta prestakuntza ez arautua dituzten pertsona bakoitzeko

- Gizonezkoak – 0,5 puntu
- Emakumezkoak – 0,75 puntu

3. ATALA

A) ANTOLAKETA

a.1) Antolatutako sustapen jardueretan parte-hartzaile kopuru totala

- 0-20 parte-hartzaile - 5 puntu
- 21-40 parte-hartzaile - 10 puntu
- 41-50 parte-hartzaile - 15 puntu
- 50 parte-hartzaile baino gehiago - 20 puntu

a.2) Antolatutako sustapen jarduerak gizartean eta komunitatean duten eragina

- Eragin txikia (elkartekin antolatutako sustapen jardunaldiak antolatzeagatik): 10 puntu
- Eragin moderatua (eskolekin edo eskola kiroleko programaren barne sustapen jardunaldiak antolatzeagatik): 15 puntu
- Eragin oso handia (inklusio programen barne sustapen jardunaldiak antolatzeagatik): 20 puntu

BALORAZIO-ADIERAZLEAK ETA HORIEN PUNTUAZIOA

- Atal hauen bitartez emateko dagoen diru kopuru guztia eta ebaluazioaren arabera kirol klub edo entitateek lortu duten puntu guztien zatiketa egin eta eragiketa horrek puntu baten balore ekonomikoa emango du.
- Puntu batetik ateratzen den balore ekonomikoa bider kirol klub, edo entitateek lortzen dituzten puntuek zehaztuko dute eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa.
- 3. Ataleko kasuan deialdi eta elkarte bakoitzeko gehienez 1000 €ko dirulaguntza emango da materiala erosteko. Ez da diruz lagunduko arraun elkarteek ohiko jardueretako erosten duten materiala.

**4- Aurkeztu beharreko dokumentazioa dirulaguntza eskatzean (1) eta zuritzean (2).
(Bi fase horietan aurkeztu beharrekoa banatuta azaldu).**

Aurkeztu beharreko dokumentazioa dirulaguntza eskatzean (1):

1. ATALA

A) BURUTU DIREN ESTROPADEN DATUAK

a.1) Estropada bakoitzaren memoria

- Klub antolatzailea.
- Lehia maila.
- Estropadaren data.
- Jardunaldian parte hartu duten klubuen zerrenda.
- Parte-hartzaile talde kopuruak.
- Emaidzak.
- Egindako jarduera egiaztatzeko eta horren lekuko izateko balio duen dokumentazio grafikoa edo ikus-entzunezkoa.

B) DATU EKONOMIKOAK BAIEZTATZEN DITUEN DOKUMENTAZIOA

- Estropaden balantzea.
- Diru-sarreraren zerrenda.
- Elkartearen edo entitatearen diruzainak izenpetzen duen agiria ziurtatuz aitortzen diren

diru-sarrerak klubak izan dituen laguntza publiko, pribatu zein bestelako izaerako guztiak direla.

- Fakturen zerrenda
 - Fakturak bat etorriko dira dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduera garatzen den aldiarekin.
 - Faktura agiri zenbakia
 - Data
 - Hornitzailearen IFK
 - Hornitzailearen izena
 - Kontzeptua
 - Zenbatekoa
- Aurretik azaldutako atalak jasotzen ez dituzten faktura guztiak ez dira dirulaguntzaren justifikazioan sartuko.
- Langile gastuen kasuan, kotizazio likidazioaren ordainagiriaren, honako hauen bidez justifikatu beharko dira: RLC (Kotizazioen Likidazio Zerrenda) eta RNT (Langileen Zerrenda Nominala), nominak, 110 erdua eta atxikipenen 190 erdua.

2. ATALA

A) BURUTU DEN PROGRAMA BAKOITZAREN MEMORIA

- Klub antolatzailea.
- Jardueren deskribapena.
- Eskola eta klubaren arteko hitzarmena.
- Parte-hartzaile kopurua.
- Arduradun tekniko kopurua eta horien formakuntza maila.
- Jardueraren hasiera eta amaiera data.
- Egindako jarduera egiaztatzeko eta horren lekuko izateko balio duen dokumentazio grafikoa edo ikus-entzunezkoa.

B) DATU EKONOMIKOAK BAIEZTATZEN DITUEN DOKUMENTAZIOA

- Jardueraren balantzea.
- Diru sarreraren zerrenda.
- Elkartearen edo entitatearen diruzainak izenpetzen duen agiria ziurtatuz aitortzen diren diru-sarrerak klubak izan dituen laguntza publiko, pribatu zein bestelako izaerako guztiak direla.
- Fakturen zerrenda
 - Fakturak bat etorriko dira dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduera garatzen den aldiarekin.
 - Faktura agiri zenbakia.
 - Data.
 - Hornitzailearen IFK.
 - Hornitzailearen izena.
 - Kontzeptua.
 - Zenbatekoa.
- Aurretik azaldutako atalak jasotzen ez dituzten faktura guztiak ez dira dirulaguntzaren justifikazioan sartuko.
- Langile gastuen kasuan, honako hauen bidez justifikatu beharko dira: RLC (Kotizazioen Likidazio Zerrenda) eta RNT (Langileen Zerrenda Nominala), nominak, 110 erdua eta atxikipenen 190 erdua.

3. ATALA

A) DATU EKONOMIKOAK BAIEZTATZEN DITUEN DOKUMENTAZIOA

- Material-mota.
- Materialaren deskribapen teknikoa.
- Materiala erosteko beharra.
- Erositako materialaren zenbatekoa.
- Erositako materialaren fakturen zerrenda
 - Fakturak bat etorriko dira dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduera garatzen

den aldiarekin.

- Faktura agiri zenbakia.
- Data.
- Hornitzailearen IFK.
- Hornitzailearen izena.
- Kontzeptua.
- Zenbatekoa.
- Aurretik azaldutako atalak jasotzen ez dituzten faktura guztiak ez dira dirulaguntzaren justifikazioan sartuko.

5- Gastu subentzionagarriak

1. ATALA

- Kirol lehiaketekin lotuta dauden ostatu-, garraio- eta mantenu-gastuak.
- Kirol jarduerari dagozkion publizitate- eta hedapen-gastuak.
- Erantzukizun zibileko aseguruak eta kirol-istripuen aseguruak.
- Gastu medikoak.
- Epailen eta arbitroen ordainsariak.
- Kirol jardueren kanonak eta eskubideak.
- Komunikazio-gastuak.
- Garaikurrak eta dominak.
- Kirol-materiala.
- Jardueretako langile-gastuak, indarrean dagoen lan-legediaren arabera justifikatuta (nominak eta kotizazio-agiriak, zerga-biltzaileak zigilatuta).
- Jardueren garapenean erabilitako material suntsikorra.

2. ATALA

- Komunikazio-gastuak.
- Erantzukizun zibileko aseguruak eta kirol-istripuen aseguruak.
- Gastu medikoak.
- Jardueretako langile-gastuak, indarrean dagoen lan-legediaren arabera justifikatuta (nominak eta kotizazio-agiriak, zerga-biltzaileak zigilatuta).
- Jardueren garapenean erabilitako material suntsikorra.

3. ATALA

- Kirol-materiala.

6- Dirulaguntzak justifikatzeko modua: laginketako tekniken bidezkoa (1) edo faktura guztiak aurkeztekoa (2)

1. ATALA

- (1) Laginketako tekniken bidezkoa

2. ATALA

- (1) Laginketako tekniken bidezkoa

3. ATALA

- (1) Laginketako tekniken bidezkoa